

# Noaia !!

www.noaia.com



Sagardo Eguna 2008,  
gehirri berezia



Usurbil Futbol Taldea,  
zuzendaritzan sartzeko errelebo eske



**NEURE BURUA NIK NEUK  
GIDATZEKO PREST!**



[WWW.MONDRAGON.EDU/PREST](http://WWW.MONDRAGON.EDU/PREST)

**PREST**  
**m**  
**MONDRAGON**  
**UNIBERTSITATEA**

**2008**  
berrikuntza urtea  
euskadi  
año de la innovación

# Rafa

iturgindegia



**astelehenetik ostiralera:**  
10h30-13h30 / 16h30- 19h30  
**larunbatetan:**  
10h00- 13h00

Bordaberri kalea 1, 1 behea • ☎ 943 36 80 04

# Txiriboga



Ordo para  
zagardo eguzkiak

## Albiste iruditan !!

# Txalaparta mundua inspirazio iturri izan da Pelexentzat

Azken urteak, txalaparta ikertzen eman ditu Jose Luis Elexpek, Pelex ezizenez. Ikerketa horren emaitza da egunotan ikusgai den "Hotsez hots" erakusketa. Ostiralean zabaldu zen baina, bezperan, Xabier Mikel Errekondo alkateak eta Pelexek berak prentsaurreko bidez aurkeztu zuten erakusketa.

Pelexek prentsaurrekoan azaldu zenez, egur lantzeak ere, kolpez kolpe, nolabaiteko txalaparta-hotsak sortarazten zituenek, oso erraz uztartu zituen bere lana eta txalaparta.

Jexux Artze Kultur Elkartearen eskutik, "Hotsez hots" erakusketa Sutegin (Irazu kalea 14an) eta Barrenkalen (Jose Martin Sagardiaren plazaren ondoan) ikus ahal izango da, maiatzaren 25a bitartean.



ERAKUSKETAREN ORDUTEGIA HONAKOA: ASTEGUNETAN, 18:00-20:00; LARUNBATETAN, 12:00-14:00/18:00-20:00. IGANDETAN, 12:00-14:00.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,

Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

- AURORA PARRAREN KANTALDIA \_\_\_\_\_ 13. OR.
- FUTBOL TALDEA, ERRELEBO ESKE \_\_\_\_\_ 14. OR.
- PILOTAN, USURBIL 2 - AZKOITIA 1 \_\_\_\_\_ 15. OR.
- OSTEGUN HONETAN, SAN ISIDRO \_\_\_\_\_ 17. OR.




Usurbilgo Udalea



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Xukin** Andoni Errazkin  
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

663 08 76 71 • USURBIL

**Komertziala behar da**  
**Usurbilgo bulegorako**

Bidali Curriculumua: amart122@mapfre.com  
edo deitu 943 894 279 (Antonio Martin)

MAPFRE



IMANOL UBEDA

## Zain egon behar hori

**E**z dut zain egotea gustuko. Nahikoa puntuala naitzela uste dut, gutxitan azalduko naiz berandu. Bost minutuko alde barkatzekoa dela iruditzen zait. Baina hortik aurrera, laster okertzen zait muturra. Denok dugu lagunartean, etxean, berandutzen den norbait. Erremediorik ez duena. Bere berandutzeak sutzen gaituela jakin arren, hurrengo batean berdin jokatu duena. Bitxia da aitzakia zerrenda luzea osatzeko garatzen duten abilezia.

Azkar ahazten ditut horrelakoak. Baina zain egotearen kontua, ordea, gero eta okerrago eramaten dut. Are gehiago, tartean administrazio publikoa dagoenean. Aste beteko epean, bitan egon behar izan dut denbora luzez itxaroten. Errenta aitortpena egiterakoan eta anbulatorioan.

Errenta aitortpena egiteko hitzordua eskatzeko ohitura dut. Internet bidez ere egin daiteke. Baina aukeran, nahiago dut aurrez aurre egin. Noizbait emango dut teknologia berriekiko saltoa, baina aurten ere, halaxe egitea erabaki dut. Bulego batean, atendituko nauen pertsona batekin, aurrez aurre. Hitzordua lehen ordurako eskatua nuen, lanera garaiz iritsi ahal izateko. 8:30erako nuen txanda baina 8:50ean oraindik itxaron gelan nengoen. Ni bezala, ordu horretan txanda hartutako denak. Ez da posible, nire artean. Lehen orduan hala badabiltza, nola ibiliko dira azken orduan? 20 minutu luze horietan, behin Ogasunarekin kunplitu eta

gero nire kexu formala egingo nuela agindu nion nire buruari. Baina azkenean, 20 minutu beranduago txanda hartu, egin beharrekoak egin eta ziztu bizian atera nintzen handik. Ez kexurik ez ezer egin gabe. Eskerrak kobratzea tokatu zitzaidan, bestela...

Nola diren gauzak. Bestelakorik ere izan nuen Ogasun bulegoan. Errenta aitortpena egiteko txanda hartu eta agindu zidaten mahaian eseri nintzen. *Nirekin euskaraz* edo antzeko txartela zuen mahai gainean, baina ogasun langilea erdaraz zuzendu zen niregana. Nik euskaraz jarraitu nion eta orduan hasi zitzaidan euskaraz hizketan. Euskara ederrean, gainera. Hau da hau. Buruntzaldeko udaletxeak ahalegin berezia egiten ari dira euskara sustatze lanetan, azkena hain zuzen, Errenta Aitortpenaren inguruan. Eta eskertzekoa. Baina ez dakit hainbeste kanpaina hainbeste aholku eginda ere, erabat anestesiatuta ote gauden ala argi gutxi duen jende artean bizi ote garen.

Lehen esan dudan bezala, medikuarenean ere zain egotea tokatu zitzaidan. Beste 20 minutuz. Medikua zetorren bitartean, erreklamazioa nola idatzi pentsatzen hasia nintzen. Medikua azaldu zen arte. Ez azalpenik, ez barkamenik, ez ezer. Kontsulta pasa eta ziztu bizian atera nintzen, lanera bidean. Erreklamaziorik egin gabe.

Estresak jota bizi garelako akaso. Niri ezinegonera eragiten didatenak, lasai ederrean bizi dira behintzat...

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**

Obaba kalea 29 • ASTEASU  
☎ 943 69 68 52 • 620 800 186

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**CLIMATA-T**

klimatizazio orokorra

☎ 687 858 390  
climata\_t@yahoo.es

**J.ORBEGOZO**

ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

Industri eta iragarki  
**SERIGRAFIA**  
**TANPOGRAFIA**

**PSU**

943 371 954  
UGALDEA POL.36-2-USBIL

**ALIPROX**

Kale Nagusia 10  
☎ 943 361 182  
USURBIL

## Mozio etikoa delakoaren harira, Ezker Abertzaleak beste mozio bat aurkeztuko du maiatzeko udalbatza plenoan

**M**ozio etiko izenez ezagutu eta azken asteotan hainbat udaletan aurkeztu diren testuek edota Arrasateko alkate Ino Galparsoro espetxeratzeak gatazka politikoa konpontzetik urrutiratzen gaituelakoan, Ezker Abertzaleak mozia aurkeztuko du udaletxean. Sagardo Egunean haren aldeko sinadurak bilduko dira frontoi atzean. Udal ordezkariak maiatzaren 27ko osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatu dute testua.

NOAUA!k jakin duenez, bost puntutako mozia aurkeztuko du Ezker Abertzaleak maiatzeko azken asteartean izango den ohiko osoko bilkurari begira. Testuan adierazten denez, zentsura mozioek, dimisio eskaerek eta oro har, Ezker Abertzalea isolatzeko edozein estrategia antzua da gatazka konpontzeko. Ez ordea lurraldetasuna eta autodeterminazioa, Ezker Abertzalearen iritzi, askatu beharreko korapiloak dira.

Alde horretatik, euskal herritarrek etorkizuna erabakitze eskubidea izanik, berau gauzatzeko urratsak ahalik eta azkarren ematea eskatzen da testuan. Gizartea eskatzen ari den aldaketa poli-

tikoa gauzatzeko Udalak ahal duen guztia egiteko konpromisoa hartzen du. Eta herritarrek erabakitakoa frantziar zein espainiar gobernuak errespetatzea galdegiten da. Proiektu politiko guztiak aukera berdintasunean lehiatzeko eskubidea aitortu eta bermatzeko Udalak bitartekoak jarriko dituela ere adierazten da mozioan.

Ilegalizazio eta traba guztien gainetik, iazko udal hauteskundeetan ia 200.000 bozka jaso zituztela gogorarazten du mozioak. Zerrenda bozkatuena izan den hainbat herrietan, gaur egun alkatetzatan egonik.

Testuinguru horretan, hainbat udaletan mozio etiko izenez aurkeztu diren testuak herri borondatearen aurkakoak direla gogorarazten dute. Madrilek hasitako ilegalizazio prozesuaren paralelotzat definitzen dute egoera, baina beti porrot egin duten estrategia edo errezeta zaharrak dira, mozioaren arabera. Errepresioa, inposizioa, ukazioa edota iruzur politikoak aipatzen dira horren guztiaren adibide gisa. Ezker Abertzalearen ustez, gaitzespen hutsetik haratago, gatazka politikoa eta armatua konpontzeko gakoa hura eragiten



HERRIZ HERRI ARI DIRA MOZIO ETIKOAK BOZKATZEN.

duten sustraia jotzean dago.

### Sagardo Egunean sinadurak bilduko dituzte

“Euskal Herriak behar duen aldaketa politikoa alde. Sina ezazu!” deia luzatu nahi dute Ezker Abertzaleak, egungo markoa gaindituko duen eskenatoki demokratikoa aldarrikatzearekin batera.

Mozioarekin bat egiten duenak testuaren alde sinatzeko aukera izango du Sagardo Egunean. Frontoi atzean sinatzeko mahaia jarriko da 11:00-13:00 artean. Testua, maiatzaren 27ko ohiko osoko plenoan eztabaidatu eta bozkatu da.

ARITZ GORRITI \_\_\_\_\_

## Errauste-plantaren kokapena ikusteko mendi martxa egingo da larunbat honetan

**L**arunbat honetan, errauste-plantaren kokapena ikusteko mendi martxa antolatu du Errauste Planten Aurkako Plataformak. Lasarte-Oriatik aterako dira 10:30ean, Okendotik. Zubietako Errebote plazara 11:00etan iritsiko dira. Handik, errauste-plantaren balizko kokapeneraino abiatuko dira. Joan etorria bi orduetan egingo dutela aurreikusi dute antolatzaileek.

Errauste planta egin bitartean, hondakinak Bizkaira bideratuko direla aipatu da azken egunotan. Honen aurrean, San Markos Mankomunitateak jakinarazi nahi izan du “hondakinen tratamenduak ez duela trasladorik behar konponbideak baizik. Erronka ez dela erraustea, gaikako bilketa egitea baizik. Horregatik, hondakinen kudeaketa errotik aldatuko duen atez ateko bilketa sustatuko du San Markosek”.



MENDI MARTXA LARUNBATEAN 11:00ETAN ABIATUKO DA ZUBIETATIK.

AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

## Eskubaloi liga, azken txanpan



**E**skubaloia ez da gure gazteek praktikatzen duten kirol bakarra, baina bai Aginagako gazteen artean arrakasta gehien duena. Horregatik hauei eskaini nahi nien gure kronika hau. Hurrengoetan beste kirolean dabiltzanei tokia egitea izango litzateke gure nahia.

Lehen urteko infantilak dira ugarietak: Jokin Pagola, Maddi Zubeldia, Eneko Bereziartua eta Manex Zubiria. Denak ere Usurbilgo Eskubaloi Taldean ari dira. Mutilek lanak bukatu dituzte. Gipuzkoako Txapelketan bosgarren gelditu dira eta Kopan hirugarren. Nesketan berriz Maddiren taldeokak Gipuzkoa mailako Ligan bigarren gelditu dira eta Txapelketan finalurrekoetan dabilta.

Kadete mailako mutilak Eñaut Pagola eta Xuban Zubiria Ligan bigarren gelditu dira eta Kopa irabazteko lehian abiatu dira. Maiatzaren bukaeran edo ekai-



naren hasieran jakingo dugu bi hauek edo Maddik zer ospaturik ba duten. Animo eta zorte on.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

## Udaberria



**A**gur bero bat guztiei San-Esteban aldetik! Inguru hauetan egia esan, gauzak bere horretan direla onartu beharrean aurkitzen naiz beste behin ere. Denborak aurrera egin ehinean, gure parajeak ere aldatuz joan ohi dira. Oraingo honetan, maiatza eta udaberriaren etorrerarekin batera, gure auzoa inoiz baino ederrago dago. Zelai berdeak, loreak... eta eguraldi onaren presentziarekin, parkea eta inguruak ere jendez beteak daude azkenaldian. Maiatza, ekaina... eta oharterako abuztuan izango gara. Gure aldetik lasai, ze komisiokoek urteroko lanari ekin diogu aurten ere. San Estebango festetako bilerak egiten hasiak gara dagoeneko eta hainbat gauza ere lotuak ditugu. Beraz, aurten ere ez da festarako aitzakiarik faltako gure auzoko plazan. Festa kontuak aipatuta, aipamen berezia merezi du usurbildarrentzat hain garrantzitsua den Sagardo Egunak. Igandea gertu dugu... Beraz, aprobetxatu eta gozatu egun handiaz. Gaurkoz besterik ez... Ondo izan eta egin irribarre bizitzari... Norberak bizitzari irribarre egiten dion modu berean egingo baitigu hark ere irribarre guri.

KALEBERRI

ANE URDANGARIN

## Sendabelarrak

**U**daberrian sartuak gara jada eh! Askori galdetu behar bere gorputzean aldaketarik eman den ala ez! Edo inolako minik jarri zaion eguraldi aldaketa dela eta. Zerikusia dutela diote eta ez da harrizkoa horrenbeste aldaketa handiekin. Urtaro aldaketen artean komenigarria da depurazio bat egiteko belar edo sendagaiak hartzea, beti ere naturalak hobeak direla uste dut. Buruko mina oso ezaguna dugu, nork ez du inoiz buru komina izan? Diotenez, elorri txuriaren infusioa hartuta, erregula daitekeela.



Hala ere gure herrian maiatza hil oparoa izaten da hainbat eta hainbat ekitaldi daudelako eta garrantzitsuenetako bat Sagardo Eguna dugu. Jende ugari izaten da egun honetan eta bertan ez da senda-belarririk egoten baina sagardo ugari bai eta hau askotan sendabelarrak baino askoz ere eraginkorragoa da, ditugun min guztiak arintzeko.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

## Kalekumeak baratzen



**Z**ubieta osoan ari dira soroan eta Zzelaian lanean. Eguraldia hobetzearekin batera lurgorriak zabaldu egiten dira nonahi. Eta jendea baratzean ari dela ikustean, nor ez da animatzen?

Ba horixe gertatu zait niri ere. Nire baratz txikia prestatu dudala: kalekumeok ere bagara nor! Horretarako Joxe Jabierri laguntza eskatu lurrari buelta emateko eta lehenengo instrukzioak jasotzeko. Gero, Etxetxori ongarria eskatu. Eta Jose Manuelek musutruk eman. Eta, orduan lanean hasi behar. Horra hor koxka.

Kontua da seme-alabak eta laurok baratzara jaitsi gine-la. Palak hartu eta zimaurrea banatzen hasi. Ordu laurden eta bost minutu gehiago, denak leher eginda ginen eta ezin zimaurrea menderatu. Denok izerdi patsetan. Seme-alabek aitari oker begira... Azkenean lana erdizka utzi genuen.

Jose Jabierrek esan zidan hurrena: baina motel hori sardearekin egiten dek! Nola sartuko dek ba pala zimaurretan. Handik gutxira plazan baratzaz ari ginela inguruko guztiek: baina hori sardearekin egiten da!

Zer nahi duzue esatea, ulertuko zidalakoan amagina-



rrebari kontatu nion palarena eta entzun zuenean, gazte-lera garbian: "Pero hijo, si eso se hace con la horca!"

Espero dut San Isidroko gogoan izango gaituela kalekumeak ere: zer den pala eta zer sardea irudietan ikasi dugunak.

ATXEGALDE

ARITZ GORRITI

## Ziztu bizian!



**B**izi-bizi, oharkabea, konturatzerako Burtea pasatzen ari zaigu. Urtaro aldaketa beti nabari dugu kalean, baina geure auzoan baita eraikinetan ere. Bestela ikusi besterik ez dago, zer nolako abiadan eraikitzen ari diren etxebizitza berriak. Auzokook oinez, edo autoz, etxe aldera goazenean edota handik kaxko aldera abiatzen garenean, Atxegalderen eraldatzeak arreta pizten digu. Arreta baino ez, gure bizitzako bigarren hamarkadan ondo sartuta gaudenongandik hasita, hala geratu beharko baitugu; beste behin, begira.

Abiada bizian berriz ere bueltan izango direnak, Atxegaldeko festak izango dira. Abuztu bukaeran, iaz bezala, arreta gune bihurtuko da auzoa. Jai Batzordekoak dagoeneko jaiak antolatzen hasiak dira. Larunbata goize-tan biltzen dira, garai batean Auzo Elkarte egoitza izan zen lekalean.

Amaitzeko, azkar asko gerturatzen ari zaigun Sagardo Eguna dela eta gomendio bat auzotarrei; larunbatean autoak utz ditzatela ondo aparkatuta auzoan. Bestela, igandean, ia nork aurkitzen duen ibilgailuak uzteko txokoren bat!

KALEZAR

MADDI GALBETE

## Auzo elkarteak

**A**zken hilabeteetan Usurbilgo auzo ezberdinetan elkarteak sortzen edo indartzen ikusi ditugu. Hala nola Santuenean, Zubietan eta Aginagan auzo elkarteak martxan ditugu. Betidanik izan ditugu "soziedade" edo elkarte gastronomikoak martxan baina badirudi, bestelako elkarteak ere bere funtzioa eta lekua dutela. Hau da, auzoko txikiengat gune bat izatea, kultur ekitaldiak antolatzea, txangoak eta azken finean auzotarrak proposatu eta aurrera atera daitzekoen ekintza ezberdinak.

Gure auzoan ere, azken urteotan guraso gazteak eta haurrak ugaritzen joan dira eta elkarte baten beharra dagoela sumatu dugu. Horretarako bilera bat ere egin da eta helburuak eta beste zenbait tramite egiteko badaude ere taldea sortzeko asmoa baieztatu zen. Beraz, laster izango dugu edozein auzotarrek parte har dezakeen auzo elkarteak.

Beraz, laguntzeko prest dagoen edozein eta ideiak proposatu eta aurrera ateratzeko gogoan daukan edozeinek lekua izango du auzoan bertan. Ea ba honekin auzoari bizia ematen diogun eta egitasmo politik antolatze gaitzeko gai garen.



## Martxan da Artzabalgo taberna eta gainerako zerbitzuak kudeatzeko lehiaketa

### Maiatzaren 7an argitaratu ziren oinarriak Aldizkari Ofizialean

**A**rtzabal baserria Gure Pakea jubilatutako elkartaren egoitza berria izango da laster batean. Bertako zerbitzuak kudeatzeko lehiaketa jarri da martxan. Eskerak egiteko epea maiatzaren 7an hasi zen eta 15 egun naturaleko epea dago lanak aurkezteko.

Apirileko udalbatza plenoan, Artzabalgo erabilpena eta kudeaketaren esleipena bideratuko duten baldintza pleguak eta baldintza teknikoak onartu ziren. Maiatzaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren baldintza horiek. Artzabalgo zerbitzuak kudeatzeko

interesa dutenek euren eskaera aurkezteko epea dute maiatzaren 7tik hasita 15 egun naturaleko epean.

Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da, hitzarmena izenpetzen den egunetik kontatzen hasita. Hala ere, kontratuaren indarraldia urte urte luzatu ahal izango da, guztira beste 8 urte gehiago, orokorrean 10 urte bete arte, kontratazio organoak hala erabakiko balu.

#### **Hilero, 500 euroko kanona**

Hileko 500 euroko kanona izango da, gastu guztiak barne.

Dena den, lehiaketarako oinarriak udaletxean eskura daitezke: telefono



KONTRATUAREN IRAUPENA  
BI URTEKOA IZANGO DA,  
10 URTE ARTE LUZABARRI.

zenbakia, 943 371 951. E-posta:  
zerbitzuak.usurbil@udal.gipuzkoa.net

## Datorren astean hasiko dira ziklomotorren azterketa teknikoak egiten

**L**ege berriaren arabera, hiru urte baino gehiago dituzten ziklomotorrek derrigorrez egin behar dute. Datorren astean, herrira etorriko dira teknikoak. Bi egunetan izango da azterketa egiteko aukera: maiatzaren 22an eta 29an. Baina azterketa pasa aurretik, txanda eskatu behar da Udaltzaingora deituz, 943 361 112.

Ziklomotorrek, 50 z.k. baino gutxiago dituen eta 45 k./o. abiadura gaintzen ez duten bi gurpileko ibilgailuek, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) derrigorrez pasa behar dute.

Inora joan gabe, herrian bertan egin ahal izango da azterketa tekniko hori. IAT-ITV delako estazio mugikor bat hurbilduko baita Askatasuna

plazara, asteazkeneko azoka egiten den aterpera.

#### **Azterketa teknikoa**

##### **goizez egin behar da**

Bi egun ahalbidetu dira: maiatzaren 22a eta maiatzaren 29a, hain zuzen, 9:00etatik 14:30ak arte. Baina azterketa pasa baino lehen, zita eskatu behar da. Udaltzaingora deitu, 943 361 112, eta telefonoz emango zaizu motorraren errebisioa egiteko txanda.

#### **Txanda eskatzeko,**

##### **Udaltzaingora deitu behar da**

Udaltzaingora deitzeko, ordutegia ere goizez: 8:30etik 14:30ak bitartean. Eta kontuan izan, 22 euro ordaindu behar direla azterketa teknikoa pasa ahal izateko.




ITVA PASA AURRETIK, HITZORDUA  
HARTZEKO UDALTZAINGORA  
DEITU BEHAR DA.

#### **Akatsak zuzenduz**

Aurreko asteko NOAUA'n, akats bat egin genuen. Azterketa teknikoa maiatzaren 22tik 29ra egingo dela genioen. Baina ez da zuzena. Ez da astebeteko epea izango, bi egun horietan bakarrik egin ahal izango da azterketa teknikoa: maiatzaren 22an edo maiatzaren 29an. Barka eragozpenak.



# Plis plas txalo ta jolas 08



Antolatzailea:

Noaua!  
www.noaua.com

Laguntzailea:



## Santixabeletako egitarauaren diseinua egiteko lehiaketa antolatu du Udalak

**U**surbilgo Udalak Santixabeletako egitarauaren diseinua egiteko lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetara norbanakoak zein taldeak aurkez daitezke. Taldean aurkeztuz gero, taldeki-de bat izendatuko da lanaren ardura-dun. Nahi adina lan aurkez daitezke. Lehiaketa irabazten duenak 500 euroko saria jasoko du. Lana maiatzaren 30a baino lehenago eraman behar da Usurbilgo Udalera.

### Lana nola aurkeztu

- Egitarauaren diseinua egiteko, egitarauaren testua Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria Zerbitzuan jaso behar da, eta testu horretan oinarrituta egingo da diseinua.

- Jaietako egitaraua euskaraz egingo da eta gaztelaniazko laburpena egitarauaren amaieran jarriko da. Letra tamainaren aldetik, euskarari lehentasuna emango zaio. Diseinuak egitarauaren orri guztiak hartu behar ditu bere baitan.

- Formatu artistiko guztiak onartuko

dira: pintura, akuarela, collagea, argazkiak, digitala...

- Lanaren neurria librea izango da.

- Erabakia hartzeko orduan, garrantzi handia emango zaio, besteak beste, egitaraua erraz irakurtzeko modukoa izateari.

- Lanetan ez da egilearen inolako seinalerik agertuko. Datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea eta telefonozenbakia) gutunazal itxi batean adieraziko dira. Gutunazalean, izengoiti bat jarriko da, eta izengoiti hori bera agertuko da aurkeztutako lanaren atzealdean.

**Epaimahaia, Jai Batzordea bera**  
Epaimahaia Santixabeletako Jai Batzordeak berak osatuko du.

### Kontuan hartzekoak

- Saria eman gabe geratu ahal izango da, baldin eta aurkeztutako lanek ez badute behar besteko kalitaterik.

- Lanaren jatorrizko diseinuak inprimatzerakoan aldatetaren bat izan lezake.

- Lehiaketara aurkeztutako lanekin



LANAK AURKEZTEKO EPEA  
MAIATZAREN 30EAN AMAITUKO DA.

Udalak erakusketa bat egin lezake.

- Saritutako lana Usurbilgo Udalaren esku geratuko da eta berak izango du inprimatu, argitaratu, zabaldu eta abarretarako eskubidea.

- Saritu gabeko lanak 2008ko urriaren 1etik 15era bitartean jaso ahal izango dira Usurbilgo Udalean.

Lehiaketan parte hartzeak ezinbestean dakar oinarri hauek onartzea.

Argibide gehiagorako deitu telefono honetara: 943 371999

## Udaleko 20 langilek UEMArekin bidez trebakuntza ikastaroak egingo dituzte

**U**dalerri Euskaldunen Mankomunitateak -UEMAk- trebakuntza saioak emango dizkie ehundik gora udal langileri maiatza-ekainean. Arrakasta handia izan du eskaintzak. Usurbilen 20 udal langilek egingo dute ikastaroa bi taldetan banatuta: batzuek maiatzean egingo dute eta besteek ekainean.

Ikastaroa idatzizko lana duten udal langileentzat dago diseinatuta. Bi helburu nagusi ditu ikastaroak: ohiko hizkuntza akatsak zuzentzea eta administrazioko hizkera ilun eta korapilatsu samarra ulertterazagoa egitea, herritarren mesederako.

Ez da aurreneko aldia UEMAk horrelako ikastaroak eskaintzen dituela.

2006ko urritik aldiro-aldiro eman ditu trebakuntza saioak, besteak beste, Oiartzunen, Alegian, Leitzan eta Aramaion. Guztira, 2006an eta 2007an, 58 udal langilek jaso dituzte UEMArekin ikastaroak. Hartara, 2008ko amaierarako, 170 udal langiletik gora izango dira ikastaroak jaso dituztenak.

Ikastaroen bidez, UEMAk bere konpromisoa berretsi nahi du udalerri euskaldunetako udal langileekin, eta bereziki herritarrekin. Izan ere, herritarrek zailtasunak izaten dituzte askotan administrazioko idatziak ulertzeko, eta are gehiago euskarazko testuak badira, dela ohitura faltagatik, dela oraindik ere euskaldun alfabetatu gabe ugari dagoelako. Zailtasunak zailtasun, aurrerapenak handiak izan dira azken

urteotan: herritar asko ohitu dira euskarazko idatzi administratiboak euskaraz jasotzen, eta gero eta errazago zaie hizkera administratiboa ulertzea. Hizkera administratibo argi eta ulertteraza helburu hartuta, UEMArekin asmoa da trebakuntza saioak euskararen normalizazioaren bidean aurrerapauso bat gehiago izatea.

### 52 lagun, azken odol ematean

**J**oan den astelehenean, 52 kidek eman zuten odola. Lerro hauen bidez, Odol Emaileen Elkarteak eskerak eman nahi dizkie denei, baita ere bertaratu eta eman gabe gelditu zirenei.



# PORTULARRUME

## Iturgindegia

Manparak , Bainuko altzariak



Ondo pasa Sagardo egunean!!

Kale Nagusia 10 • ☎ 943 364 637 / 943 365 299

➤ [www.noaua.com](http://www.noaua.com) ◀  
usurbildarron zerbitzura



oilaskoa eramateko  
eta bertan jateko  
karaokea  
Wi-Fi zona

Xarma Taberna  
Borda Berri kalea, 3 - Usurbil - ☎ 943 36 87 71



- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

**Ondo pasa Sagardo Egunean!**



TLFN : 943 36 04 66 kontseju zaharra 13 zb



**USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA**



**Erdi eta goi mailako zikloak  
A eta D Ereduak**

**[www.lhusurbil.com](http://www.lhusurbil.com)**

Administratiboa
Parasetela-ekidortza
Fanifikazio-makineria
Industria-erregio-eko mahaia



**Maiatzak 17 eta 24  
ATE IREKIAK**

**☎ 943 36 46 00**

FISIOTERAPIA ZENTROA



**Ibaiondo**

Fisioterapia  
Errehabilitazioa  
Masajeak

*ondo pasa sagardo egunean!*

Ola Kalea, 12 - behea, ezk.  
LASARTE - ORIA  
Tel / Faxa: 943 370 306  
fisiobaiondo@gmail.com

**LATAILLADE**



**ITURGINTZA**

**Ondo pasa sagardo egunean!**



**Iturgintza, gas,  
berogintza eta  
klimatizazioa**

**INSTALAZIOAK ETA  
MANTENIMENDUAK**



**ARISTITXO 8 BEHEA  
943 363 348 • 609 888 021**

# Musika klasikoaz gozatzeko aukera aparta

**A**urora Parra Usurbilen bizi den sopranoak ez du hutsik egin aurtengoan ere. Musika klasikoak ulertu, ezagutu eta alor horretara gerturatzeko gonbita luzatzen digute, larunbat honetan, Sutegin. Berrikuntzekin gainera; oraingoan, kantaria taldea osatuta dator. Ahotsarekin batera, pianoak ere bere tarte propioa izango du. Eta kontzertu didaktikoa izango da. Hori guztia eta gehiago, maiatzaren 17ko emanaldian, 19:30etik aurrera.

**NOAUA! Hirugarren emanaldiak zer nolako nobedadeak dakartza?**

**Aurora Parra.** Aurrekoetan neroni nintzen kontzertua eskaintzen nuena, pianista batekin. Oraingoan, bi lagun gonbidatu ditut abestu eta pianoa jotzera. Haiei lagundu nahi diet eta haiek ni laguntzen naute ahotsarekin, lirikoa abesteak pres-takizun handia eskatzen baitu. Pianoarentzat soilik eskainitako zati instrumental bat ere izango du emankizunak. Errepertorio klasikoko autoreen lanak eskainiko ditugu.

## KANTUAK ETA KONTUAK

“Didaktikoa izango da kontzertua. Abesti bakoitzaren nondik norakoak azalduko ditu aurkezle batek”

**N. Euskarazko kanturen bat ere eskainiko al duzue?**

**A. P.** Neure lagun kataluniarrak badu euskaraz kantu bat bere errepertorioan; Xabier Leteren “Habanera” izango da. Lagunari ilusio handia egiten dio.

**N. Nola eman duzue taldea osatzeko pausoa?**

**A. P.** Taldea bereziki emanaldi honetarako osatu dugu. Taiwaneko laguna etorri zitzaidan, beldur eszenikoa zuela eta emanaldi bat eskaintzeko norbait behar zuela esanez. Musikenen zaila baita, ikasle zarenean. Nik ere ilusioa nuen eta, lagun kataluniarrak berdin. Bera, oraindik artista profesionala izan gabe, formatzen ari den pertsona bat. Bakarrik abes-



LARUNBAT HONETAN SUTEGIN ARITUKO DIRA KANTARI ETA MUSIKARIAK. ESKUBIKOA DA AURORA PARRA, GURE SOLASKIDEA.

ten aritu gabe, pozgarriagoa zen haiei ere abesten ikustea.

**N. Badirudi publiko zehatz bati eskainitakoak direla emanaldi hauek. Irudi hori hautsi nahiko duzue?**

**A. P.** Hori da nahi ez dudana. Aurkezle lanetan arituko da Gari Udabe eta alderdi didaktikoa eskainiko du berak. Abesti bakoitza zeri buruzkoa den azalduko du. Hizkuntza ezberdinetan abestuko ditugu iragan mendeetako kantak. Aurkezleak euskaraz errezitatuko ditu. Pianistaren kasuan, abestien egileak ezagutaraziko ditu. Jendeak musika klasikoaren errealitate-tik urrun dagoen emanaldi gisa ikusi ez dezan.

**N. Nola prestatzen da ezaugarri haue-tako kontzertu bat?**

**A. P.** Udalera joan behar da, kasu honetan, pianoa alokatu eta emanaldi gunera ekarri... Zu zara emanaldiko deitzailea eta baita aldi berean antolatzailea ere.

**N. Lekua, zer moduzkoa iruditzen zaizu?**

**A. P.** Eskertu lehenbizi erakundeei, kontzertua eskaintzeko lekua utzi izanagatik. Kultur etxea, akustikagatik bakarrik kontzertu klasiko baterako oso estua da. Nire ibilbidea egin eta aukera eskaintzen didaten neurrian, orde, ez dut ezer eskatzen. Badakit zer dagoen eta dagoena onartzen dut.

**N. Ahotsa nola prestatzen da? Ezer berezirik egin ohi duzue kontzertu baten atarian?**

**A. P.** Gimnasia joatea bezala da. Egunero zaindu behar da, gihar bat entrenatzea bezalakoxea da. Emanaldi egunean erakusten duzue, urte osoko entrenamenduetan egindakoa. Kirola bezala da eta publikoak baloratzen du hori. Hala ere, kontzertu unean izan dezakezun urduritasuna ere kontuan hartzekoa da.

**N. Usurbildik kanpo, eskaini al duzue beste emanaldirik?**

**A. P.** Nik bakarrik ez. Musikeneko ikasle guztiak Irunen egon ginen apirilean. Nirekin abestuko duen neska ere bertan izan zen.

## Larunbat honetan, Sutegiko auditorioan

EGUNA: maiatzak 17, larunbata.

ORDUA: 19:30.

LEKUA: Sutegi.

KIDEAK: Julia Bresco (ahotsa), Aurora Parra (ahotsa), Chiung Yao Tseng (pianista bakarlaria) eta Borja Rubiños eta Rodrigo de Vera Diez (pianista laguntzaileak).

SARRERA: doan.

## Usurbil Futbol Taldeko zuzendaritzak ekaina bukaeran utziko du taldea

**U**surbil Futbol Taldeko zuzendaritzak taldea utziko du ekaina bukaeran. Beraz, aginterik gabe geratuko da taldea. Nekea nabari zaie zuzendaritza taldeko kideei. Horretaz aparte, lan-talde berri batek indarra emango lioke futbol taldeari berari. Oraingo, ez dago zuzendaritzan sartzeko borondatea azaldu duenik. Baina gaiak garrantzia handia duenez, batzar baterako deia egin dute Usurbil FTko kideek. Sutegin izango da bilera hori, maiatzaren 24an. Imanol Bereziartua eta Urtzi Izagirre zuzendaritzako kideek esan digutenez, “gure asmoa da sartzan direnei martxa hartu arte laguntzea”.

**NOAUA.** Zergatik utzi behar duzue Usurbil FT taldeko zuzendaritza?

**Imanol Bereziartua.** Ez da azken orduko kontua izan. Sei-zazpi lagun aritzen gara eta urte batzuk badira zuzendaritzan sartu ginela. Erreleboa aurten eman behar da. Azken bi urteotan, dinamika nahikoa eskasean sartu gara. Taldeak freskura behar du. Ez da nekea bakarrik, azken urtetan gauza handirik ez dugu aportatu. Guregatik eta klubarengatik, onena da talde berri bati lekua uztea.

### IMANOL BEREZIARTUA

“Beren seme-alabak futboleko jokatzeko ikusi nahi badituzte, akaso inplikatu egin beharko dira”

**N. Zein da zuzendaritzak bideratu behar duen lana?**

**Urtzi Izagirre.** Denboraldi hasieran izaten da lan gehiena, jokalarien fitxak osatu behar den garaian.

**I. B.** Bi ataletan banatzen dugu lana. Kirol mailakoa, ekipoak osatu, teknikoak aukeratu... Eta bestea, lan administrati-boa litzateke. Dirua lortzea, kuotak kobratu, errifak... Ze udalak ematen digun laguntza ez da nahikoa.



LAU TALDE DITU USURBIL FT TALDEAK: BI ERREGIONAL TALDEAK, NESKEN TALDEA ETA KADETE MAILAKO TALDEA.

**N. Gurasoek badute zuen erabakiaren berri, ezta?**

**U. I.** Gurasoekin bi bilera egin ditugu eta erregional taldeko jokalariekin beste bilera bat. Gure inguruko jende artean aritu gara errelebo eske, baina ez dugu arrakasta gehiegi izan. Maiatzaren 24ko bilera horregatik antolatu dugu. Ze guk ekainean taldea utzi egingo dugu.

**N. Eta erreleborik emango ez balitz, zer gertatuko litzateke?**

**I. B.** Guk taldea utzi nahi dugu. Hori da gure planteamendua. Gu taldea uztera goaz. Beraz, beren seme-alabak futboleko

jokatzen ikusi nahi badituzte, ba akaso busti egin beharko dute. Eta jokalariekin berdin. Jokatu nahi badute...

**U. I.** Dena den, sartzan direnei laguntzeko prest gaude. Zubi lana egiteko prest.

**I. B.** Gure asmoa da sartzan direnei martxa hartu arte laguntzea.

**N. Zein da epea?**

**U. I.** Ekainean bagoaz. Denboraldia bukatzean.

**I. B.** Hurrengo denboraldiko taldeak osatuta edo bideratuta egon beharko lukete ekaina bukaeran.

## Egoeraren berri emateko, batzarra egingo da maiatzaren 24an

**E**rreleboa aurkitzeko saiakera batzuk egin dira. Gurasoekin bi bilera egin dira baina arazoak hor jarraitzen du. Badirudi ez dagoela inor futbol taldeko zuzendaritzan sartzeko prest. Dena den, gaiak duen garrantzia ikusita, ez-ohiko batzarra antolatu du Usurbil FT taldeak. Bilera datorren astean egingo da,

maiatzaren 24an, Sutegiko areto nagusian.

Egungo zuzendaritzak uda baino lehen ziurtatu nahi du erreleboa. Hartara, uda ondorenean lan talde berri batekin hasiko litzateke denboraldi berria. Egungo zuzendaritzak arduraz jokatu du eta, trantsizio garaian, laguntzeko prest azaldu da.

# Usurbil 2, Azkoitia 1

## Bueltako partidak ostiral honetan jokatuko dira Azkoitiko frontoian

**U**surbildar pilotariak lan txukuna egiten ari dira Herri Arteko Pilota Txapelketan. Lasarte-Oriako taldea gaintu zuten lehen kanporaketan eta, bigarrean, Azkoitiaren aurka lehen 2 eta 1 aurreratu dira. Ostiral honetan, Azkoitian jokatu diren partidetan argituko da norgehiagoka. Usurbildarrak, ilusio handiz abiatuko dira Azkoitiara.

“Guk bagenekien Azkoitiko taldeak ez duela garai bateko indarra”, adierazi digu Enrike Huizi pilotariak. Baina ez zuten lan erraza izan. Aurreko ostiralean ikusi zen bezala, Azkoitiak oraindik maila handiko pilotariak ditu. Hala ere, 2-1 jarri da aurretik Usurbilgo taldea. Giro ederra izan zen Usurbilgo frontoian, eta pilotariak gustura aritu ziren etxekoen aurrean.

### BUELTAKO PARTIDAK

“Azkoitian jende asko biltzen da frontoian eta oso gainean izaten dira”

Herri Arteko Pilota Txapelketan, kadete, jubenil zein nagusien mailako partida bana jokatu behar izaten da. Joan-etorriko norgehiagokak dira. Joaneke partidak lehen ostiralean jokatu ziren Usurbilgo frontoian.



USURBILGO TALDEA LAN TXUKUNA EGITEN ARI DA HERRI ARTEKO TXAPELKETAN.

Bueltakoak, datorren ostiralean jokatuko dira Azkoitian.

Oraingoz, aurretik jarri dira usurbildarrak. Aurreko ostiralean jokatu zen joaneke kanporaketa eta lehen partidari, Xabi Santxo eta Markel Galarraga kadete mailako usurbildarrak nagusitu ziren, 22-7 irabaziz. Jubenilen partida parekatuagoa izan zen, 22-17 usurbildarren alde. Eta nagusien mailan galdu arren, lan txukuna osatu zuten Enrike Huizik eta Jabi Santxok. Tanto guztiak borrokatu zituzten eta, horri esker, Usurbilgo taldea 2-1 aurreratu da eta 13 tantoko abantaila lortu du. Gogoan izan, berdinketa emango balitz, tantoak hartuko lirakekeela kontuan.

“Ez dira partida errazak, presio handia izaten da”

Gaeko 22:00etan hasiko dira partidak. Eta hara joateko asmoa dutenek gogoan izan dezatela sarrera jarri ohi dutela, 5 eurokoa.

“Ez dira partida errazak izaten. Presio handia izaten da”, adierazi digu Enrike Huizik.

Enrike Huizik adierazi digunez, “jende asko biltzen da frontoian eta oso gainean izaten dira”. Presio hori epaileengana ere iritsi ohi da.

Hala ere, gogotsu daude usurbildarrak, norgehiagoka gaintzeko ilusioarekin. Ostiral honetan jakingo dugu azken emaitza.

### ESKUBALOI EMAITZAK

#### Maiatzak 1-4 jardunaldia

Jubenil n. Usurbil KE 31-Zarautz A 22  
Jubenil n. Zarautz B 20-Usurbil KE 25  
Kadete n. Usurbil KE 31-Zarautz A 27

#### Maiatzak 9-11 jardunaldia

2. Territor. Aloña Mendi 24-Usurbil KE 26  
Jubenil m. BKL Haritza 27-Usurbil 32  
Kadete m. Usurbil KE 44-Bergara KE 23  
Jubenil n. Bera Bera 29-Usurbil KE 46  
Jubenil n. Usurbil KE 28-Pulpo KE 20  
Kadete n. Usurbil KE 40-Pulpo KE 17  
Infantil n. Zarautz 17-Udarregi 15

### XXXVI. Pilota Txapelketa, asteburu honetako partidak

#### MAIATZAK 16 OSTIRALA, 19:00

AGINAGAKO FRONTOIAN  
NAGUSIAK  
Muguruza-Herran (Bergara)  
Zaldua-Goikoetxea (Alde Zaharra)

Lizaso-Pebet (Villabona)  
Iribar anaiak (Zumaia)

Etxaniz-Egaña (Eibar)  
Irazustabarrena-Zinkunegi

#### MAIATZAK 17 LARUNBATA, 10:30

AGINAGAKO FRONTOIAN  
JUBENILAK  
Golosabel-Zendoia (Arruti)  
Arruti -Egiguren (Azkoitia)

Ugarte -Etxeberria (Andoain)  
Urruzmendi-Olasagasti (Igeldo)

NAGUSIAK  
Odriozola-Yeregi (Azpeitia)  
Barreros-Goikoetxea (Lazkao)

#### MAIATZAK 18 IGANDEA, 10:30

AGINAGAKO FRONTOIAN  
JUBENILAK  
Galarraga-Erauskin (Altzo)  
Fernandez-Ortiz Urbina (Antigua)

Olabide-Perez (Añorga)  
Intsausti-Aranburu (Beasain)

NAGUSIAK  
Rodriguez - Intxausti (Zumarraga)  
Azkarate -Iragi (Huarte)

# Morau eta Agotak taldearen “Kalamidadiak”

AEK Etumeta euskaltegiak antolatu du ostiral honetako kontzertua Sutegin

**S**altsa askotako piperra da Jexux Agirresarobe. Azken bolada honetan, Nafartarrak taldearekin hainbat ekimen bideratu ditu herrian. Baina musikarako zaletasuna ere, aspalditik datorkio. Azken urteak, Morau kantariaren alboan egin ditu, baxujole lanetan. Martxoan, “Kalamidadiak” diskoa aurkeztu zuen Morauk eta lan horretan zeresan handia izan zuen Jexuxek. Baxua grabatzeaz aparte, kantuen ekoizpen artistikoz ere arduratu baitzen. Ostiral honetan, Sutegiko taula gainean ikusiko dugu Jexux.

Etumeta AEK euskaltegiak antolatu du ostiral honetako kontzertua. Morau eta Agotak taldekoak izango dira Sutegin, 22:30ean hasiko den saioan. Agotak Moraurekin aritzen den musika taldea da eta bertako baxujolea da gure protagonista, Jexux Agirresarobe usurbildarra.

## JEXUX AGIRRESAROBEBE

Azken urteotan, Moraurekin batera dabil baxua jotzen eta grabazioetan ekoizle lana egiten

“Kalamidadiak” diskoa aurkeztuko dute Sutegin. Jexux Agirresarobek azaldu digunez, “*piano piano* aritu gara diskoa lantzen”. Duela bost urte argitaratu zuen Morauk aurreko lana, “Txukalda” izenekoa. Jexux Agirresarobek adierazi digunez, “lan hura argitaratu eta bi urtera kantu berriekin hasi ginen lanean. Morauk prestatzen ditu melodiak baina ideia horiei kolorea eta forma eman behar zaie”.

Kantu berriak osatuta, audio grabaketa bat egin zuten. Azken ukituak egin eta iaz hasi ziren Sutegin aurkeztuko duten diskoa grabatzen.

Kantuak osatzea gauza bat da. Musiko denek ekarpenei zentzua eman eta osagai denekin diskoa biribiltzea beste bat. Azken honi ekoizpen-lana egitea deitzen zaio. Eta honakoan, ardura hori Jexux



JEXUX AGIRRESAROBEBE, SUTEGI ATARIAN.

OSTRAL GAUEAN BERTAN ARITUKO DA ZUZENEAN MORAUREKIN BATERA.

Agirresarobek berak hartu du bere gain. “Aurreko diskoan ni ibili nintzen saltzeatzen. Baina azken honetan, Morauk esan zidan, ekoizpen lan osoa hik egin ezak. Eta gustura aritu naiz. Eskertzekoa da eman didaten konfiantza”.

## “Garen bezala”

Disko batean, ohikoa izaten dira beste musikarien kolaborazioak. Honakoan, ez da ohikoa izaten den premisa bete. “Ez gara beste munduko musikoak izango, baina taldearen naturaltasun hori jaso nahi genuen disko honetan. Garen

bezala azaltzea”. Horrek ere badu beste abantaila. Zuzenekoak fidelagoak izango dira, diskoan jasotakoa izango da taldeak zuzenean eskainiko duena, bestelako artifizioen beharrik gabe.

## Politena, zuzenean aritzea

“Kalamidadiak” grabatu eta gero, Jexux Agirresarobe taldea uztekotan egon zen. Baina aitortu digunez, “behin diskoa egin eta gero, zuzenean jotzea da lan politena” eta Sutegin bezala, aurrerantzean eskainiko dituzten kontzertuetan ere arituko da Jexux Agirresarobe.

## Kontzerturako sarrerak salgai

### Txirristran, Txiribogan eta euskaltegian

**D**uela bi hilabete plazaratu zen Morauren disko berria, “Kalamidadiak”. Baina izenburuak adieraz dezakeenaren kontra, “Kalamidadiak” ez da disko goibela edo tristea. Ostiral honetan Sutegira hurbiltzen direnek kantu melodikoak eta bizipozak kutsatutakoak entzungo dituzte. Saioa 22:30ean hasiko da. Sarrerak Txiribogan, Txirristran eta Etumeta euskaltegian daude salgai, 5 eurotan. Egunean bertan eta lehiatilan



erosiz gero, 7 euro. Etumeta euskaltegiak antolatu du Morauren saioa.



## Agenda !

### Maiatzak 15, osteguna

- San Ixidro eguna. Meza nagusia izango da eta ondoren hamaiketakoa.

### Maiatzak 16, ostirala

- Morau eta Agotak, kontzertua Sutegin, 22:30ean.

### Maiatzak 17, larunbata

- Aurora Parraren kantaldia, musika klasikoko kontzertua. 19:30ean Sutegin.

### Maiatzak 18, igandea

- Sagardo Eguna. 11:00etan irekiera ekitaldia.

### Maiatzak 19, astelehena

- Ikastolako ikasleen bertso jaialdia. 18:00etan Udarregi ikastolako aretoan.

### Maiatzak 21, asteazkena

- Berako Musika Eskolako ikasleak Sutegin, 18:00etan.  
- Hitzaldia: "Nekazaritza, elikagaiak eta osasuna". Sutegin, 19:30ean.

## Alkartasunaren eskutik, hitzaldi interesgarri gehiago begibistan

**E**hun urte bete ditu Alkartasunak eta urteurrenaren harira, ekitaldi asko antolatzen ari da sindikatua. Aurreko astean, baratze bat sortzeko ze pauso eman behar diren azaltzeko ikastaroa antolatu zuen. Datozen egunetan, nekazaritza, elikagaiak eta sagarrondoaren gaixotasunak izango dira Alkartasunak antolatu dituen hitzaldien hizpide nagusiak.

Datorren asteazkenean, hilak 21, nekazaritzaren, elikagaien eta osasunaren arteko harremanaz arituko da hizketan Jesus Calvillo aditua. Sutegiko auditorioak jasoko du Calvilloren hitzaldia, arratsaldeko 19:30etik aurrera.

Nekazaritzari buruzko hitzaldia bezain interesgarria dirudi maiatzaren



SAGARRONDOEN GAIXOTASUNEI BURUZKO HITZALDIA MAIATZAREN 24AN EGINGO DA.

24ko hitzaldiak, "Sagarrondoaren izurri eta gaixotasunak" izenburupean Aitor Etxeandiak goizeko 9:00etatik aurrera eskainiko duena.

## Meza eta bazkaria, San Ixidro eguneko ospakizunak

**O**stegun honetan, hilak 15, San Ixidro eguna. Udalak ekitaldi hauek antolatu ditu: 11:00etan hasiko da meza nagusia. Meza ondoren, hamaiketakoa plazan Andatzpe elkarteak antolatuta. Ondoren ahari joko eta bertsolariak.

14:00tan nahi duenarentzat bazkaria Saizar sagardotegian, baina bazkaria ordaintzea norberaren kontura.

## Akatsak 2008ko Telefono Gidan

**D**atuen Babeserako Lege berria dela eta, datu digitalen trataerengatik akatsak egon dira joan zen astean Usurbilgo etxeetan banatu zen telefono-gidan.

Udal iturriek jakinarazi digutenez, "telefono-gida horretan zure telefono zenbakia ez baduzu aurkitzen deitu, mesedez, 943 493994 telefono zenbakira. Barka eragozpenak".



## Eguneko goardiako farmaziak

Maiatzak 15, osteguna  
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Maiatzak 16, ostirala  
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Maiatzak 17, larunbata  
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte  
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil\*

Maiatzak 18, igandea  
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Maiatzak 19, astelehena  
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Maiatzak 20, asteartea  
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Maiatzak 21, asteazkena  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 22, osteguna  
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Maiatzak 23, ostirala  
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Maiatzak 24, larunbata  
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte  
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil\*

Maiatzak 25, igandea  
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Correa Farmazia (22:00-09:00),  
Perkaiztegi kalea, 8 Hernani 943 33 60 22  
\*Usurbilen, soilik eguerdira arte

### ETXEBIZITZA

- Baseri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, garajea dauka. Abala eskatzen da. Deitu 19:00etatik 21:00ra 607582968 telefonora.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilaguntzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baseri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berria eta amueblatua. 49.800.000 pta. Tf: 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egocera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta trasteroa. Berritua. 51.000.000 pezeta. 696 693 710.
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.

- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukaldea, egongela eta trasteroekin. 685731792.

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajeen egondakoa. 620625823.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaintzak

- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Ordu egian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.

#### Lan-eskaerak

- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibiltateak. 679742413.

tatea. 679742413.

- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Usurbilen edo inguruan belardiak behar dira belarra ontzeko. Tlf: 607 45 70 04. 943 36 60 40. Dani.
- Musika ekipo bat salgai: mahaia, etapak, ahots efektuak... egokia talde baten lokalean jartzeko. Larra DJ 615713204.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberrian umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberrieekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Martxoaren 15ean zilar kolorezko eskumuturrekoa brazaletan itxurakoa galdu nuen. Barrukaldean "uno d 50" jartzen du. 943 36 52 61
- Martxoak 9an Usurbilgo frontoian xira txurigorri bat galdu dut. Aurkitu baduzu: 943130036.
- Otsailaren 24an Igeldo inguruan Pastor Aleman eme gazte bat galdu dugu. Bikote batek hartu zuela uste dugu. Txipa eta identifikazio plaka ere badauzka. 943210330.
- Naranja eta gorri koloreko bi raketa galdu ditugu; bat handia, bestea txikia. 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzatak beltz batekin. Aurkitu badituzu: 685 72 56 81.
- Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitoxa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkia salgai. Aritz egurrez eginkoak. 943 36 20 49.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net

### JAIOTZAK

Izar Garcia Molina, maiatzaren 4an jaio zen.



**Zorionak June!**  
Maiatzaren 17an, bost urte.  
Zorionak guraso eta lagunen partez!



**Zorionak Ioritz!**  
Maitzak 15ean egingo dituzu urteak, denen partetik zorion handi bat eta muxu potolo bat bidaltzen dizugu!

**Oharra:** *Jaiotzak*, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan, telefonora: 943 360 321. E-posta: [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

**ESTETIKA eta ONGIZATEA**

**Jenar ESTETIKA**

☎ 943 571 680

K/ Munalurra 2, 1A behea · USURBIL

**MAHUKA**

ETXEBESTE KALEA, 3 - 943 361 100

Hemen aurkituko duzu gizon eta emakumezkoen **MODAKO ARROPA**



# Otar-Goxo

E s i k a g a i a k



ondo pasa sagardo egunean...

ZUBIAURRENEA, 2. USURBIL - TEL. 943 36 55 81

**LAUKOTE**  
OGITARTEKOAK - SAGARDO EGUNEA

Sagardo egunean  
OGITARTEKOAK  
izango ditugu

urtebetetzeko meriendak  
ENKARGUBIDEZKOTARTAK  
SU-EGURREKO OGIA  
OPILAK

PUNERPAK KALAN, 5. - BARRIA (ARTZUNDA)  
Telefonoa: 948 24 23 90



edaritegia

**BORDATXO**

Pintxo bereziak  
Bokatak  
Plater konbinatuak

ondo pasa  
Sagardo Egunean !!

Zubiaurrenea, 5. © 943 37 10 42

# Txotx!!



Txotxetik sagardoa  
jarrantu tradizional

Tel.: 943 365 031

Mugikorra: 670 027 731

Santuenea



**LARRE-GAIN**  
**DOLARE SAGARDOTEGIA**

Urtearietik apirilera  
**TXOTX GARATA**  
Ostiral, larunbat eta ingande  
eguerdian **IREKITA**  
Astelehenetan **ITXITA**

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hemani**  
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



**SAIZAR**  
Betiko Sagardoa

Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228  
[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)



**ELUTXETA**  
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.

Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA  
**ARRATZAIN**  
DOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.

[info@agroturismoarratzain.com](mailto:info@agroturismoarratzain.com)  
Arratzainzar Baserria • Telf: 943 36 66 63



☎ 943 36 12 29

**Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak**  
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta **USURBIL**  
[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com) | [www.astazaransagardoak.com](http://www.astazaransagardoak.com)

**Aginaga**  
Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

Estreka kalea, 7  
Aginaga auzoa, **USURBIL**  
Tel. eta Faxe: 943 36 67 10  
Tel.: 943 37 06 68

[a.sagardotegia@aginasagardotegia.com](mailto:a.sagardotegia@aginasagardotegia.com)





**N!**

*Schizanthus benesi*  
**XXVII. Sagardo eguna**  
*maiztarak 18*

**08**



# A. Bruño e Hijos S.L.

ondo pasa Sagardo egunean!

## ANGULAK ETA ITSASKIAK

Menu ezberdinetako  
aurrekontuak egiten ditugu.

Egin ezazu zure eskoera telefonoz:

☎ 943 37 27 88 Usurbil

Legarde Kaleko Zumartegi.



Gantzak, langostinoak, karrakelak,  
nekora, lincepernak, bula, zentilloa,  
mixera, kamariolak, dlagamaa, arto txuria.

**65€**

## Aguirrezabal Estankoa

*Ondo pasa  
Sagardo egunean*

kale Nagusia, 27.

☎ 943 361 110

## Aizpurua Okindegia

*Telesfora ardoak*



*Festetan gure mahaia*

*ondo hornitu nahi baduzu,  
gurean baduzu aukera!*

*Kale Nagusia, 25 • ☎ 943 36 12 20*

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

**pil-pilean**



## ALKARTASUNA KOOPERATIBAKOEK IREKIKO DUTE SAGARDO EGUNA

**Maiatzeko hirugarren igandea ailegatu zaigu beste behin, zentzumen guztiei sagar kolorea, usaina eta zaporea darien eguna. Herria bertako zein kanpotarrez betetzea baino ez da geratzen. Sagardo Egun on denoi!**

**E**hun urte beteko ditu aurten "Sindikatu" izenarekin askori ezagunagoa egin ohi zaion Alkartasuna Nekazal Kooperatibak. Urteurren borobila izanda eta jorrazten duten alorrek maiatzaren 18ko jai egunarekin lotura estua duela kontuan hartuta, modu ezin egokiagoan hasiko da XXVII. Sagardo Eguna.

Txalapartariz eta bertsozari lagundutako irekiera ekitaldiarekin batera, sagardo postuak martxan jarriko dira. Aurtengoan, 46 postuetako sagardoa dastatu ahal izango da. Gertukoak gehienak, baina urrunagoko ordezkariak ere izango du hogeita zazpi garren edizioak; Kantabria eta Galizian egindako sagardoa dastatu ahal izango da. Ez ahaztu frontoira sartu baino lehen, edalontzia erostea.

### **Joko hezigarriak Artzabalen**

Sagardo Egunak, ohi denez, jai gune nagusia frontoian eta Dema Plazan izan ohi du. Baina azken urteetan eskenatokiak erantsi zaizkio. Hor dago Askatasuna plaza. Sagardo tragoxken artean sabela bete nahi duenak bertan



**TXALAPARTARIEK ERE PARTE HARTUKO DUTE IREKIERA EKITALDIAN.** aurreratu dituzte pintxoak.

Gune didaktikorik ere ez zaio falta urteroko hitzorduari. Gaztetxoek sagardogintzari buruz zerbait gehiago ikasi ahal izango dute eta, Artzabalen. Sagardoa edangarri izateko igaro behar duen ekoizpen prozesu osoaren nondik norakoak ikasiko dituzte, joko entretenigarrien bidez.

### **Txaranga eta erromeria**

Egun osoko plana egiten dutenek, izango dute zer entzun eta dantzatzeko aukera. Azpeitiko Nahidekena txarangak alaituko du bazkalostea. Arratsalde erditik aurrera, frontoian erromeria izango da Ostolaza eta Pujana trikiti-

arien eskutik.

### **Sagardo botatzaileak behar dira**

Sagardoa zerbitzatuko duten herritarrak behar dira. Bezperan, muntaia lanean aritzeko ere jendea behar da. Hilaren 17an, larunbata, goizeko 9:00etan plazan jarri dute antolatzaileek lan horiek burutzeko hitzordua.

Sagardo Egunean bertan ere, goizeko 8:00etarako azaltzeko deia egin da. Baserritar jantziekin eta betiko zapi zuri gorriarekin agertu dadila sagardoa botatzen jardun nahi duenak.

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

**txiritik**



## USURBIL-CHANTADA (GALIZIA) ELKARTRUKEA, BIGARRENEZ

**Iaz zabaldu zuten bidea eta aurten esperientzia errepikatu dute. Sagardo Egunaren Lagunak-eko kideak Chantada herriko Sagardo Egunean izan ziren apirilaren 19an. Igande honetan, ordea, Lugon kokatua dagoen herriko sagardoa Usurbilen dastatu ahal izango da.**

**B**ederatzi usurbildarrek apirileko hirugasteburua Galizia aldean igaro zuten. Chantada herrian hain zuzen. Sagardo Eguna ospatzen zuten bertan bigarrenez, eta usurbildarrak herrian bezala aritu ziren han ere; geurean egiten den sagardoa Chantadara hurbildu zirenei eskaintzen. Behar bezala, baserritarrez jantzita eta zapi zuri gorria esekita.

Gipuzkoako ordezkartzarik ez zen falta izan; herrialdean ekoizten den sagardoak Chantadako bost postu bete zituen.

Usurbilgo Sagardo Eguna-ekin alderatuta, Lugon kokatzen den herriko giroa oso ezberdina dela azpimarratzen dute, bertan egon diren herritarrek. Haien esanetan, Galiziako herrian baino protagonismo handiagoa du sagardoak Usurbilen. Sagardo ekoizpena geure inguruan Galizia aldean baino ugariagoa dela ezin ahaztu.

### **Tradizioa sortzen**

Ezberdintasunak badira, Chantada eta Usurbilen ospa-



USURBILDARRAK, CHANTADAKO FEIRA DA SIDRAN ATERATAKO IRUDIAN.

tzen diren sagardoaren inguruko jaietan. Bi ekimenek jorratu duten bideari dagokionez, aipatzekoak dira bateko zein besteko sagardo egunen sortze urteak. Iaz hasi ziren ospatzen Lugoko herrian eta aurten bigarren edizioa bete du. Tradizioa sortzen ari dira beraz. Usurbilgoaren parean, sagardo postuen erdiak jartzten dituzte. Sagardo dastatzeari eskainitako iraupena aldiz, gehiago zabaltzen da egunean zehar.

### **"Feira da Sidra"**

Bi txandatan antolatu zuten apirilaren 19ko jaiak; eguerdi

partearen hasi eta bazkal ordura arte, sagardo postuetatik osteratxoa egin zitekeen. Arratsalde partean, berriz zabaldu zituzten postuak, sagardoa ahitu artean. Gauean, bi folk taldeek eskainitako emanaldiarekin amaiera eman zioten "II. Feira da Sidra" ekimenari.

Ezberdintasunak nabariak diren arren, hemengoaren antzeko egitaraua prestatzen dute; irekiera ekitaldia dute eta une horretan hasten da sagardo dastatze saioa. Sagardo botatzaileen erakustaldia eta lehiaketa ere antolatzen dute.



# ANTXETA jatetxea





ONDO PASA SAGARDO EGUNEAN!

bokatak · eguneroko menuak  
plater konbinatuak  
bodak eta bataioak

EGUZKITZA 4 · 943 370 344

# Auto Guria

**Auto Konponketa**

**Pre I.T.V.**

**Marka guztiak**

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)  
☎ 943 363 298 • Faxe: 943 363 862

# ARDI BELTZ GARAGARDOTEGIA



Ondo pasa Sagardo egunean eta txukun ibili!

- Entsalada bereziak • Plater konbinatuak
- Eguneroko menua • Asteburuko menua
- Bokatak eta razioak • Inportatutako garagardoak.

Puntapax 12 • USURBIL • ☎ 943 367 054

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

## erreportajea



## SAGARDOTEGIKO MENUA... LABORATEGIAN PRESTATUA

**Imajina dezagun une batez, sagardotegian dastatu ohi dugun menua sukaldean egin beharrean laborategi batean prestatzen dela. Lasarte-Usurbil BHI Institutuko ikasle talde batek halakorik esperimintatzea lortu du. Duela gutxi ospatu den Esperimentaldian aurkeztu dute euren lana, arrakasta handiarekin.**

**S**ukaldea beti izan da esperimintatzeko laborategi bat. Kazola artean ikasten dabilenak, edota sormena erabilia errezeta berriak sortu nahi dituenak saltsan ibiltzeko gunea du sukaldea, edo laborategia. Lasarte-Usurbil BHI-n lehen batxilergoan dabiren ikasle talde batek agerian utzi du bi guneen artean dagoen lotura estua.

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

## erreportajea



Mikel Martinezek irakasten duen "Laborategi teknikak" arloko ikasle talde batek sagardotegi menuarekin zenbait esperimendu burutu ditu.

### Plateraz platera

Inguruan ditugun sagardotegietara jotzen badugu, menua dastatzen hasteko, bakailao tortilla zerbitzatuko digute. Tortillen osagai nagusiak diren arrautzak beste bide batzuetatik frijitu daitezkeela frogatu dute Institutuko ikasleek. Ozpina eta alkohola baliatuta adibidez. "Beste faktore batzuk kontrolatuta, efektu bera lortu liteke", adierazi du Martinezek.

### Haragia, bere puntuan

Haragi pusketak hartu eta plantxa batean puntu onena noiz lortzen duen ere aztertu ahal izan dute; jateko moduan zer uneetan dagoen eta noiz hasten den gehiegi egiten. "Lau bat minuturekin lortzen du puntu onena. Hortik aurrera, asko lehortzen zen, likido asko galtzen zuen. Belztu eta gogortzen zen", dio ikasleetako batek.

Sagardotegiko bazkaria postre eder batekin amaitu ohi dugu. Intxaurrekin batera, ohi-tura, irasagarra eta gazta dastatzea da. Esnekiarekin kola egitea lortu dute Institutuko ikasleek. Mamia egin, bikarbonatoa gehitu eta masa moduko bat lortu zuten. Azken emaitza, aipatu bezala, kola. Menuari akabera emateko, izozki beroa. Jatekoari laguntzeko ezin ahaztu edatekoa, sagardoa.

Muzttoa hartuta, hartitze prozesua gauzatu zuten.

### Ohiko produktuekin

Esperimentua gauzatzeko ez dute osagai berezien beharrik izan. "Etxeetan denok ditugun produktuak erabili ditugu", gogorarazi du Mikel Martinez irakasleak. Hori bai, prestakizun lanek ez dute goiz bat iraun, ondo landutako ideia izan da. "Atzetik badago lana, gaiari eskainitako orduak", adierazi du Martinezek. Ideia urte hasieran planteatu zien ikasleei, sukaldaritzak geure inguruan duen garrantzia ikusita, eta nola ez, datari begira, txotx garaia hastear zen eta sagardotegiak irekitzear ziren unean. Sagardotegiko menuko osagaiak dituzten ezaugarriak behatu eta sukaldean zer modutan maneiatzen diren aztertzea zen helburu nagusia.

### Esperimentua ikusgai Kutxa Miramonen

Baten baino gehiagoren arreta piztu dute, Institutuko ikasle taldeak sagardotegi menuarekin egindako esperimenduak. Duela gutxi ospatu den Esperimentaldia izeneko ekimenean parte hartu dute. Ikastetxeek eta enpresek egindako lanak erakusgai jartzen dituzte urtero, Kutxak Miramonen antolatzen duen ekitaldian. Postuetako batean izan zen Batxilergoko lehen mailako ikasle taldea. "Politza izan zen esperientzia. Jendeak interesa agertu zuen eta harra hori poztekoa izan zen", gogoratzen dute ikasleek.



PROIEKTUA GARATU DUTEN  
IKASLEAK ETA IRAKASLEA.

## KIMIKA LABORATEGIAN, ETA SUKALDEAN

Egindako lanarekin gustu-  
era dira. Esperimentazio prozesu horretan ordea eta saiatu diren arren, egiteko zerbait gelditu zaiela adierazi du irakasleak; haiek birsortu duten menua, jatorrizkoarekin, betikoarekin alderatzea. Froga lana egitea ezinezkoa izan zaie taldekide gehienei, bere sendiak sagardotegia duen ikasle bati izan ezik. "Ezberdina da, sagardotegian bertan sagarra txikitzea adibidez. Hemen beste produktu batzuekin, legamiarekin zer azkar ematen diren pausok", adierazi du. Esperimendu honek zer pentsatua ematen du; etxeko sukaldea eta laborategia uste baino lotuagoak daude. "Geure etxeetan egiten dugun gehienak zerikusi handia du kimikarekin", adierazi du Martinezek. Dagoen lotura oso modu argian frogatu du Lasarte-Usurbil BHI Institutuko ikasle taldeak.

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

**elkarrizketa**



GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEKO KIDE DA PATXI AZKONBIETA ETA SAGARDONAT ALDIZKARIKO ZUZENDARIA.

## **“SAGARDOA EDARI ON BAT BEZALA ZAINTZEA NAHI DUGU”**

**GIPUZKOAKO SAGARDOGILE ELKARTEKO BATZORDEA BERRITU ZUTEN  
URTE HASIERAN. JUNTAKIDE BERRIAK SARTU ZIREN, BAINA LEHENDIK  
ARDURAPEAN JARRAITZEN DUENIK ERE BADA; TARTEAN, URDAIRA  
SAGARDOTEGIKO PATXI AZKONBIETA. ALORRARI BURUZKO INFORMAZIOA  
ESKAINTZEN DUEN SAGARDONAT ALDIZKARIKO ZUZENDARI  
IZENDATU DUTE, DATOZEN LAU URTEETARAKO.**

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

## elkarrizketa



**NOAUA! Bost urte daramatzazu Sagardogile Elkarteko batzarkide gisa?**

**Patxi Azkonobieta.**

Sagardogile Elkartean 1991-92 aldera sartu nintzen. Juntakide bezala bost urte daramatzat. Lau urtean behin aldatzen dira batzordekideak eta bigarren legegintzaldia hasi dugu. Zaharrenak ateratzen dira kanpora, baina beti aurreko juntakide batek edo bik jarraitzen dute. Oraingoan, Lizeaga sagardotegikoa eta neu geratu gara. Hurrengoan, beste batzuei egokituko zaie.

**N. Aldaketa duela gutxi egin duzue?**

**P. A.** Urtarrilean osatu zen batzorde berria. Lehen Asanblada orain egitekoa dugu.

**N. Kideen aukeraketa prozesua nola garatzen da?**

**P. A.** Hautagaiak aurkezten dira eta gero asanbladan erabakitzen da, balekoak diren edo ez. Batzordea osatuta, bakoitzak egin beharreko lanak zeintzuk diren adosten da. Iaztik hona kide usurbildar bat gehiago dugu batzordean. Poza hartzen da.

**N. Lau urteko berri honi begirara, sagardoaren irudia hobetzea aipatzen da erronken artean?**

**P. A.** Horretan ari gara aspaldidanik, baina zaila da. Lanean ari gara. Etxe guztietan, mahai guztietan, jatetxeetan... Irudia hobetzea, sagardoari maila hobea ematea da asmoa. Sagardoa edari on bat bezala zaintzea nahi dugu. Sagardo Egunarekin ere lanean ari gara. Plazako irudia hobetu nahi genuke. Baina legegintzaldi hone-



SAGARDOGILE ELKARTEAK SAGARDOA SUSTATZEA DU XEDE NAGUSI.

tan lortzea zaila izango da.

**N. "SagardoNat" aldizkariko zuzendari berria zaitugu, ezta?**

**P. A.** Aldizkaria gehienbat sagardogile elkarteontzat da, baina sukaldaritza eskoletara edota erakundeetara ere bidaltzen dugu. Lau hilabetean behin argitaratzen dugu, urtean hiru zenbaki. Pixka bat gehiago zabaldu nahi genuke. Inguruko aldizkari batzuekin harremanetan jarri nahi dugu, merkatuari buruzko informazioa zabalteko. Ni lan honetan berria naiz eta aldizkaria bera ere berria da.

**N. Sagardogile Elkartean eginkizunak, bestelakoan, zeintzuk dira?**

**P. A.** Elkarteko bazkide guztiei zerbitzuak ematea, diru-laguntzei buruzko informazioa adibidez. Dastatze ikastaroak ere antolatzen ditugu. Landaredi gaiak ere jorra-

tzen ditugu, Mendikoi-ren bidez. Hortik aurrera, legediari lotutako gaiak lantzen ditugu, osasun ordezkariekin bildu... Sagardogileen ordezkariek gara. Horregatik egiteko asko dago.

**N. Alde horretatik, aldizkaria egindako lana hedatzeko tresna garrantzitsua izango da zuentzat?**

**P. A.** Azoketara joaten garenean, hango informazioa e-mailen bidez zabaldu beharrean, aldizkari bidez banatzen dugu. Hori da bete nahi dugun lan bat. Bestalde, datu horiek guztiak biltzeko enpresak elkartera etortzen dira. Denek alorrari buruzko informazioa izatea, hori da geure asmoa. Ia helburua lortzen dugun.

**N. Urdairan lanean, Sagardogile Elkarteko juntakide... Nola bizi duzu Usurbilgo**

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

## elkarrizketa



### Sagardo Eguna?

**P. A.** Poza ematen du. Usurbilgo Sagardo Eguna antolatzen dutenek lan asko egiten dute. Jende asko ibiltzen da, goiz partean bakarrik ospatzen da eta hori gustukoa dut.

### N. Txotx garaia amaitu berria da. Mugimendua ibili al duzue zuen sagardotegian?

**P. A.** Ondo, gustura gaude. Bezero kopurua iaz baino baxuagoa izan da, leku guztietan bezala. Hernani aldean ere hala izan dela entzuten da, nahiz oraindik ez dugun haiekin hitz egin. Lehen asanbladan horri buruz jardungo dugu eta han komentarioak egingo dira. Jaitiera, nire ustez, aurten Aste Santua martxoan egokitu delako izan da. Kontuan hartu, egun horiek direla jendetsuenak, kanpotar asko etortzen den garaia. Aurten horren falta izan dugu. Egungo egoera dela eta, bestalde, diru aldetik ere justuago ibiliko da jendea.

### N. Eta sagardoari dagokionez, ona izan da aurtengoa?

**P. A.** Bai. Sagardo ona izango dugu aurtengo udan kalean. Ni gustura nago, besteei ere hala entzuten zaie. Oro har, maila polita du. Bertako sagarrak ez izateko ona dago. Ia aurten bertan, sagar gehiago izan eta orduan eta sagardo hobea egiten dugun.

## 30 URTEZ, SAGARDOA BULTZATZEN

**1977an sortu zen Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea. Une honetan, 59 sagardotegik osatzen dute ekoizleen interesak defendatu eta sagardoa sustatzen duen bilgunea. Produktua inguru honetan bultzatzen dute.**

Baina baita geure mugetatik kanpo ere, antolatzen diren azoka ezberdinetan parte hartuta. Sektorea profesionalizatu eta sagardoaren kalitatea hobetzea dira

haien erronka nagusiak.

Sagardoari buruz sagardogileentzat eginiko aldizkaria da SagardoNat. Alorrari lotuta dauden albisteak biltzen ditu. Baita adituei edota sagardogileei eginiko elkarrizketak, sagastiei buruzko gomendioak edota pil-pilean dauden arloko gaiak. Sagardoa oinarritzat duten ospakizun edo azoken berri ere ematen du. Oraingoz, urtean lautan kaleratzen den aldizkaria Sagardogile Elkarteko kideen artean banatzen da. Aurrera begira ordea, eragileek sektore zabalago batera



SAGARDOGILEENTZAT EGINIKO ALDIZKARIA DA SAGARDONAT ALDIZKARIA.

IRUDIAN DUZUE LEHEN ALEAREN AZALA.



# Errazkin S.L.

igeltseritza orokorra

943 372 679

649 435 470

kale nagusia 47, behea A

MARGOAK - PAPERAK

**FERNANDO**  
**PINTURAK**

ENPAPELAKETAK eta  
PINTURAK OROKORREAN



Ondo pasa jaietan!

Kale nagusia 1

943 366 019 • 943 363 460

# USURBIL

---

## O P T I K A



**Audifono pertsonalizatuak.**

**Uretako tapolak.**

**Eguzkitako betaurrekotan  
beherapenak.**

Zubiurre 10. ☎ 943 370 269

# INENZA

ILEAPAINDEGIA



*Prestatu zaitez Udarako!*

*Tratamendu bereziak deskontuekin  
Ileapaindegi eta estetika zerbitzuak  
Solariumna*

☎ 943 363 641

PUBLIZITATEA

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

## egitaraua



**11.00** — Hasiara ekitaldia, Alkartasuna Nekazal Kooperatibakoen eskutik. Txalapartari eta bertsolariak.

### Goizean zehar:


- Gipuzkoako sagardogileen 46 postu frontoian eta Dema Plazan.
- Askatasuna plazan pintxoak.
- Artzabalen haurrentzat gunea.
- Sagar barietateei buruzko erakusketa.

**12.00** — 12:00 Sagardo botatzaileen txapelketa. Bazkalondoan, Nahidekena Azpeitiko txaranga.

**18.00** — 18:00 Erromeria Frontoian: Ostolaza eta Pujana.

**Antolatzailea:** Sagardo Egunaren Lagunak.

**Laguntzailea:** Usurbilgo Udala.







zer nahi duzu bihar?

*Ondo para  
Sagarde Egunean*

# JUANTXO

BURDINDEGIA



Zubiaurrenea 8 • ☎ 943 370 008

PUBLIZITATEA

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

**pil-pilean**



## **PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARRETARATZEA**

**S**agardo Egunean ere, gure artean falta direnak gogoan izango dituzte. Urtero bezala, presoek eskubideen aldeko elkarretaratzea izango da frontoi atzean, Usurbilgo presoek eskubideen aldeko herritarrek deituta. 13:00ean hasiko da elkarretaratzea.



Ondo pasa!

**Mota guztietako  
errotuluak**

Ibilgailuak - Erakustokiak  
Pankartak - Kartelak  
Inpresio digitala

kale Nagusia, 10 - Tel/Faxa: 943 36 60 21



**Eskaintza berria**

✓ Depilazio iraunkorra

✓ Radiofrekuentziaren

bidez gaztetze tratamentua

Zubiaurrenea 4, USURBIL

☎ 943 361 951

Tel.: 943 36 27 35

# TXIKIERDI

## JATETXEA TABERNA

Eguneko menua  
Asteburuetan menu berezia

TXIKIERDI AUZOA USURBIL




**URDAIRA**

## Sagardotegia

*Sagardo naturala*

Aginaga  
943 37 26 91

**URDAINTZI S.L.**  
*Igeltseritza*

*ondo pasa  
Sagardo egunean!*



943 367 264  
649 435 475  
649 435 476

*Ondo pasa  
Sagardo egunean!!*

izagirrelektrizitatea@hotmail.com



Goiz Aigi etxea, 37 kalea  
Tel.: 943 36 50 95  
Mugakora: 609 065 111  
Faxa: 943 37 65 87



Usurbilgo Udala

**XXVII.**  
**Sagardo**  
**eguna**  
**maiatzak**

**18**

**Zatoz** eta  
ondo **pasa**  
sagardo  
egunean